

3. gaia

Izen-sintagmaren azterketa (1)

0. Sarrera: oharrak izen-sintagmaren eraketaz 1

1. Izena 2

1.1. Izenaren sailkapenak 2

- 1.1.1. Izen arruntak *versus* Izen bereziak 2
- 1.1.2. Izen zenbakarriak eta zenbakaitzak (etenak eta jarraiak) 3
- 1.1.3. Izen neurgarriak eta neurgaitzak (konkretuak eta abstraktuak) 3
- 1.1.4. izen bizidunak eta bizigabeak 3

1.2. Izenaren generoa 4

1.3. Izenaren numeroa? 4

1.4. Izena predikatu modura 4

0. Sarrera: oharrak izen-sintagmaren eraketaz

- (1) a. *Andoni* etorri da
b. *Bost neska* etorri dira
c. *gure Andoni hori* etorri da
d. *Gasteizko bost neska txiki* etorri dira
e. *hori* etorri da
f. *bost txiki* etorri dira

beltzez daudenak = izen-sintagmak, izenaren inguruko egitura-multzoak

- izen-sintagman → izena da ardatza, eta izenik ezean, izenen bat falta dela ulertzen da (= 1e, 1f)
 - *determinatzailea* sarri ia-ia nahitaezkoa da (1a-n izan ezik)
 - badira elementu atributiboak, aukerakoak = adjektiboa eta *izenlagun* funtzioa duten postposizio-sintagmak ([IS + postposizioa] egiturak)
- IS delakoan, izenak determinatzailea behar duen moduan, determinatzaileak ere izena behar du.¹

¹ Gaur egun ez da harrigarria izen-sintagmari *determinatzaile-sintagma* ere esatea, determinatzaileak duen garrantziaren erakusgarri.

1. Izena

1.1. Izenaren sailkapenak

1.1.1. Izen arruntak *versus* Izen bereziak

a. formalki, izen bereziak dira IS osatzeko inolako determinatzailearen beharrik ez dutenak:

- (2) a. Gasteiz (*a) izugarri gustatzen zait
b. Joane(*a) Tourraren irabazlea izan zen duela urte batzuk.
- (3) a. *Hiri izugarri gustatzen zait
b. *Euskal txirrindulari Tourraren irabazlea izan zen duela urte batzuk.

b. Bigarren irizpidea, semantikari dagokio:

- izen bereziek berez dute erreferentzia zehatza eta (solaskidearentzat) *ezaguna*;
- izen arruntek ez dute erreferentziarik.

- (4) Miren, Josu, Gasteiz, Guggenheim, Kursaal (testuinguru arruntean norbait/zerbait gogoan)
- (5) ikasle, begi, liburu, hiri, ... (*ikasletasun, begitasun, ... ezaugarriak dituzten klaseak edo sailak izendatzeko*)

● Oharrak:

- (6) gure Andoni hori, Paris berria, Peru gurea, ...
- (7) aita, ama, amabitxi, ... (artikulu gabe erabiltzen dira hainbat senidetasun izen)

➔ *erreferentzia bakarra* omen duten izen batzuk artikuluarekin erabiltzen dira, baina erreferentzia edukitzeko, hain zuzen ere, artikulua beharrezkoa da:

- (8) ilargia, zerua, eguzkia, astelehena, abendua...

Beraz, izenok arruntak dira argi eta garbi.

1.1.2. Izen zenbakarriak eta zenbakaitzak (etenak eta jarraiak)

→ izen zenbakarriak zenbatzaile zehaztuekin arazorik gabe IS osatzen dutenak dira:

- (9) a. hamar liburu, bost etxe, lau katu, hamaika lagun, ...
 b. *bi olio, * bost gorroto, *lau ur, *hamaika gari, ...²
- (10) a. kafea edan ... (masa jarraitu modura)
 b. kafe bi edan (katilukadak)

1.1.3. Izen neurgarriak eta neurgaitzak (konkretuak eta abstraktuak)

→ izenaren ezkerretara agertu ohi diren neurri-sintagmak onartzen dituztenak dira neurgarriak:

- (11) a. bost kilo olio, hamar litro ur, zakua bete egur, tona bat paper...
 b. * lau zakukada {maitasun /esperantza}, *lau kilo fede, *litro bat bake...

1.1.4. izen bizidunak eta bizigabeak

→ gramatikak *nor/zer* bereizketaren bidez edo *-engan/ baita-* deklinabide-atzizkien bidez bereizten dituenak dira bizidunak:

- (12) a. etxe, buru, esku, odol, gorroto, arbola, landare, ... = bizigabeak
 b. emakume, gizon, lagun, suhiltzaile, ... = bizidunak
- (13) a. etxe-ø-tik / *etxe-a-ren-gan-dik
 b. emakume-ø-tik / emakume-a-(ren-)gan-dik
 c. Galdera: nor ikusi duzu? Erantzuna: *etxe bat / emakume bat
- (14) Irakasletik irakaslera alde handiak daude.

² Egia da *bi olio*, *lau ur* bezalakoak ondo daudela, baldin eta *bi olio-mota*, *laur ur-mota* ulertzen bada.

1.2. Izenaren generoa

→ euskarak ez du eskuarki genero gramatikalik bereizten; izenak ez dira maskulino edo femeninoak:

- (15) a. liburu, ate, mahai, ... (genero bereizketarik ez)
b. gizon, emakume, ...

→ Gehienez, hitz jakin batzuetara mugatzen da bereizketa, baina sexu-bereizketa da, ez genero gramatikalarena:

- (16) a. lehengusu / lehengusina
b. alkate / alkatesa

• Euskalki batzuetan, zuberera esaterako, ematen du bikote hauek ugariago direla:

- (17) a. euskaldun / euskalduntsa
b. mediku / medikusa
c. bulanjer / bulanjersa

→ gainerakoan, gaztelaniatik hartuko izen-adjektiboetara mugatzen da kontua:

- (18) a. arkitekto / arkitekta b. majo / maja

1.3. Izenaren numeroa?

• Euskaraz izenak ez dira singularrak edo pluralak, ez bada mugatzaileen bidez:

- (19) a. aquel maravilloso año *versus* aquello-s maravilloso-s año-s
b. urte zoragarri *hura* *versus* urte zoragarri *haiek*

- (20) a. año (sg) / años (pl) = determinatzailezik ez
b. urte-a (sg) / urte-ak (plurala) = izena + *mugatzailea*

1.4. Izena predikatu modura

• izena eta IS erreferitzeko izan daitezke:

- (20) *Lehendakariak kirolariari saria eman zion*

• baina izena eta IS predikatuak ere izan daitezke (batzuetan artikulua eta guzti):

- (21) a. Iaz *itzultzaile* ibili nintzen, eta aurten *irakasle* nabil euskaltegi batean.
b. Jon eta Marijo *literaturako irakasleak* dira